

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak adinekoen eta desgaitasuna dutenen arreta hobetzeko informatika-sistema ezarriko du

Nafarroa guztirako aplikazioa da eta, hari esker, pertsona bakoitzarentzako autonomiaren helburuak banaka diagnostikatu eta defini daitezke

Miércoles, 29 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak adinekoen eta desgaitasuna dutenen kolektibo guztirako [arreta-sistema](#) bat ezarriko du ekainetik aurrera; sistema horrek diagnostiko bat eta banakako laguntza-plan bat ematen ditu kasu bakoitzean, haien autonomia hobetzeko eta beren mendekotasuna atzeratzeko azken helburuarekin.



Egoitza baten barnealdea.

Gobernuak gaurko bilkuran izan du ekimen horren berri (aitzindaria da Espainian), eta lehen fase batean, 10.500 nafarri baino gehiagori mesede egingo die; haiek guztiak adineko, adimen urritasun edo desgaitasun fisikoa duten kolektiboetakoak dira, edo buruko gaixotasun larri bat duten kolektibokoak.

Tresna berria Gizarte Politiken Departamentuak, La Caixa fundazioaren eta Caja Navarra fundazioaren finantzaketarekin, sustatutako informatikako aplikazio bat da; aipatutako tresna garatzeko 120.000 euro jarri dituzte.

Banakako arreta

Aplikazio horrekin, pertsona bakoitzaren banakako diagnostikoa egin daiteke eta, haren arabera, laneko helburu batzuk finkatzen ditu bere autonomia-mailak mantentzeko, aurrez profesionalen artean adostuta daudenak. Emaitzen jarraipen eta ebaluazio bat egiten da. Prozesu guztiaren azken xedea erabiltzaile bakoitzaren bizi-kalitatea hobea izan dadin lortzea da.

Sistemak aplikazio bat eskaintzen du pertsona-profil bakoitzerako, desgaitasun fisikoa edo adimen urritasuna, adinekoa edo buruko gaixotasun larria izanda ere; horrekin batera, adituek garrantzitsuenetzat jotako arloetan lortu beharreko helburu zehatzak eskaintzen ditu. Honako hauek dira:

1. Ezagutza aplikatzea (arreta gordetzea estimulu bisualen aurrean).
2. Eginkizun simple eta ohikoak izatea.
3. Komunikazioa: ahozko mezuak, ahozkoak ez diren mezuak, zeinuen bidezko mezuak eta abar izateko aukera.
4. Mugikortasuna: gorputzaren posizioa aldatu eta mantendu ahal izatea, objektuak, eraman, mugitu eta erabiltzea...
5. Nork bere burua zaintzea, higiena, jantzea, jatea, edatea.
6. Etxeko bizimodua: ondasunak eta zerbitzuak bereganatzeko aukerari eutsi ahal izatea, jangelako etxeko zereginetan parte hartzea, mahaia jartzea, jostea, arropa garbitzea.
7. Pertsonen arteko elkarrekintza (trebetasun sozialak mantentzea).
8. Buruko osasuneko bizimoduaren arlo nagusiak (lana, enplegua eta ekonomia).

Aplikazioari esker, profesionalek arlo bakoitzean erdietsitako emaitzak ebalua ditzakete. Gainera, senideek erabiltzailearen bilakaera ezagutu ahalko dute une oro.

Tresna berriaren abantailak

Tresna berriak ondorengo abantailak eskaintzen ditu:

A) Artatutako pertsoneri, arreta eta beren autonomia pertsonala hobetzen die, banakako laguntza eskaintzen du, eta emaitza pertsonala era sistematikoan ebaluatzen uzten du bere arretan hobetzeko elementuak sartze aldera.

B) Gizarteko erakundeei, arlo eta helburuen arabeko laneko sistema argi eta sistematikoa ematen die, emaitzak neurtzeko aukera eskaintzen du, profesionalen artean koordinatzea.

C) Administrazioan gizarte-politiken zentro guztiei tresna erkide bat ematen die helburuak markatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.

Gainera, homogeneoa, bakarra eta estrapolagarria den lan-eredu bat eskaintzen du. Hala, pertsona bat zentro batetik bestera eramaten badute, arreta-sistema berarekin jarraitzeko aukera izango du. Halaber, kudeaketako eraginkortasuna bermatzen du, erakundeen arteko alderatzeak ezartzen uzten eta baliabideak ematen dituzten pertsoneri emaitzak eskatzea.

Sektorearekin garatutako lana

Gizarte Politiken Departamentua lan hori duela urtebete egiten hasi zen eta, horretarako, departamentuko teknikarien partaidetza izan du, bai eta alor horretan lan egiten duten egoitza, fundazio eta elkarteena ere. Zehazki, ondorengo zentro eta erakundeetako ordezkariak parte hartu dute: El Vergel, Centro San José, Lares Navarra, Las Hayas, Oncinada, Valle del Roncal, eta Adacen, El Molino, Elkarkide, Anasaps, Tasubinsa, Aspace, Ademna, Anfas, Infanta Elena.

Jarraipen-batzorde bat eratu da hura finantzatzen duten erakundeen aldetik (Caixa fundazioa eta CAN fundazioa, Gizarte Politiken Departamentua eta arlo bakoitzeko zenbait gizarte-erakunde), eta haiek guztiek zainduko dute sistema berri hori eta behar bezala funtziona dezan.

Aipatuenez, tresna ekainetik aurrera ezartzen hasiko da eguneko zentroetan eta egoitzetan, okupazio-zentroetan eta Nafarroa guztiko gizarte-erakundeetan. 24 zentrorikin hasiko da, eta kopuru hori datozen hilabeteotan zabaldu egingo da. Gainera, bigarren fase batean, adingabeak artatzeko zentroetara zabaltzea aurreikusten da, bai eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzura ere; hala, Gizarte Politiken Departamentuak artatutako pertsona guztiak hartuko ditu.